

LARUNBATERO LANDAKETA

HERRIKOIAK

Urte hasieratik eta larunbatero, herriko zenbait elkarte eta bizilagun jo ta ke aritu gara lanean, mendia txukuntzen, zuloak egiten eta landaketa berriak egiten. Natura bazter guztietatik erasotzen ari garen garai hauetan, iharduera honen berri eman nahi dizuegu eta era berean, datorren neguan anima zaitezten proposatu.

Urtarrilaren bigarren larunbatean hasi ginen talde lanean. Egin da, landareak pres-tatu eta lortzeko lana aurretik zetorrela baina larunbata horretan deialdia zabala zen.

«Goizeko bederatzieta elkartu gara. Txerrimu-ñotik tresnak hartu eta **Iparragire** runtz abiatu gara hamabost bat lagun. Hor, ur deposito ondoan eta pasa den urten, lur eremu bat garbitu eta berlandatu zen eta aurten ja-rraipena eman nahian, eremu berri bat landu da. Hiru larunbata behar izan ditugu. Lehenengoan garbiketa, botatako pi-nuen adarrak bildu, ira-tzea moztu... Bigarrean 60 zulo inguru egin geni-tuen eta hurrengoan lan-daketak. Guztira 36 aritz, 3 arte, 12 lizar eta aran bat, guztiak Iparragirreko mintegian sortuak, eta 6 urki Arrihaundi ondokoak eta 10 pagu gazte Nafarroatik ekarriak.

Aurtengoz horrela ge-ratu da Iparragirre. Esan beharra dago lur eremu hauek berez pribatuak di-rela baina herriak erabi-liak. Ongi legoke Udala lur horien babesle izatea».



Jo ta ke, ekin eta jarrai.



Geuk eusten ez badiogu, nork eutsiko dio geureari?

EPERTXOKO

Aldizkari honetan, behin batean, Epertxoko buruzko idazlan bat atera zen, hala ere, ez dakienarentzat, Jaizkibel mendian, Elostegi gainean dagoen herrilurra da eta duela hiru urtetatik hona, ekoloji taldea berlandatze lan bat burutzen ari da.

«Epertxokon lau larunbata pasa ditugu. Aurten Ekaitz atseden taldeko neska mutilek ere bertan burutu dute zuhaitz landaketa. Izerdi ederrak bota ditugu sasi eta ote mozketetan! Bigarren larunbatean zuloak egiteari ekin genion eta hirugarrenean 40 neska mutilen artean ia berrehun landare landatu dira: 52 arte, 25 artelatz, 8 gorosti, 3 erramu, 12 gaztainondo, hagin bat, 36 urki, 10 urritz, eta 40 aritz. Landare guzti hauek udalaren laguntzaz erosiak izan dira Urnietako Arizmendi biberoan».

ALTAMIRA

Udaberria ia gainean genuelarik, Zabarre gazte taldekoekin landaketa berri bat burutu da.

Altamirako lur eremu batean lekua prestatu eta 200 landare gazte sartu ditugu. Guztira 25 lizar eta 6 urritz (herriko bizilagun batek emanak), 9 gorosti, 23 elorri beltz edo basaran, 40 urki, 80 aritz eta 15 gaztainondo hauek ere Urnietakoak.

Landaketak burutu ondoren eta hauen babeserako, eremua ixtea geratzen da. Lekuaren kokalekuak eta landare oso gaztea izateak hori eskatzen du, egindako lana mantentzea nahi bada behintzat.

Beno, bada, hauxe da gutxigorabehera aurtengo landaketei buruzko laburpentxo bat. Datorren neguan partehartzea haundituko delakoan gaude. Anima zaitzte.

LEZOKO EKOLOGI TALDEA